**ETXAURIN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA SORTZEKO PROZESUA**
*PROCESO PARA LA CREACIÓN DE UNA COMUNIDAD ENERGÉTICA EN ETXAURI*

| **6.SAIOA** | **PARTAIDEAK / *Asistencia*** |
|---|---|
| 2023-06-21<br>18:00-19:30 | Herritarrak / *Ciudadanía*: 7 (4 emakume, 3 gizon) |
| | Udala / *Ayto.* : Idoia Aritzala Etxarren (alkatea) |
| | Dinamizazioa / *Dinamización*: Maria Arretxe (Goiener), Uxune Alustiza (Emun Koop.E) |

## 1. Errepasoa / *Repaso*

Prozesuaren ze momentutan gauden errepasoa egin dugu:

- Hiru lantaldeak sortuta.
- Bi proiektu adostuta: instalazio fotovoltaiko partekatuarekin hasiko gara, eta, pixkanaka, Valdizarberekin kontratu bilateralaren aukera aztertzen hasiko gara.
- Komunitatearen emaila sortuta: etxaurienergia@gmail.com
- Kooperatiba eta elkarteei buruzko informazioa irakurtzen.

*Hemos hecho un repaso del momento en el que estamos en este proceso:*

- *Los tres grupos de trabajo creados.*
- *Dos proyectos acordados: empezaremos con la instalación fotovoltaica compartida, y, poco a poco, abriremos la vía de exploración con la empresa Valdizarbe para un contrato bilateral.*
- *Email de la comunidad creado:* etxaurienergia@gmail.com
- *Leyendo información sobre las diferencias entre cooperativa y asociación.*

## 2. Komunitatea eratzeko prozesua / *Proceso constituyente de la comunidad*

Azaroaren 10a baino lehen erregistratu behar da komunitatea, diru laguntza jaso ahal izateko.

Kooperatiba edo elkartea izango garen proposamena iraileko saiora ekarriko du lantalde juridiko-administratiboak.

Kooperatiba baten erregistroa egiteko eman behar diren pausuak aztertu ditugu:

- Estatutuak idatzi.
- Kontseilu errektorea izendatu eta eratze akta sinatu.
- Kooperatibaren izena libre egotearen ziurtagiria.
- 1500€ kontu korronte batean.
- Notaritzatik pasa.

Iraileko bilerarako estatutuetan erabaki beharreko ataletarako proposamenak ekarriko ditu lantalde juridiko-administratiboak: helburuak, organoak, bazkide motak, kuotak…

*Hay que registrar la comunidad antes del 10 de noviembre para poder recibir la subvención.*

*El grupo jurídico-administrativo traerá a la sesión de septiembre una propuesta de si seremos cooperativa o asociación.*

*Hemos visto los pasos que hay que dar para hacer el registro de una cooperativa:*

- *Escribir estatutos.*
- *Nombrar el consejo rector y firmar el acta constituyente.*
- *Certificación negativa del nombre de la cooperativa.*
- *1500€ en una cuenta corriente.*
- *Pasar por notaría.*

*El grupo jurídico-administrativo traerá a la sesión de septiembre una propuesta para los artículos de los estatutos: objetivos, órganos, cuotas…*

## 3. Instalazio fotovoltaiko partekatua / *Instalación fotovoltaica compartida*

Erabaki genuen herritar interesatuen fakturak bilduko genituela lehenbizi, datu errealekin instalazioa dimentsionatu eta kokatzeko. Azken saioan hasi ginen fakturak biltzen; 14 dauzkagu.

Irraileko lehen saioan, instalazioaren proiektua datu errealekin dimentsionatuta aurkeztuko dugu, hau da, aurre-bideragarritasun azterketa bat. Saioaren data adostu dugu: **irailak 12, asteartea, 18:00etan udaletxean**.

Aipatu dugu helburua izan daitekeela 30 eta 40 faktura artean biltzea; CUPSa ere izan daiteke. Izen-abizenak eta NA ez dira nahikoa.

Fakturak irailak 4 baino lehen bidali Mariari (maria.arretxe@goiener.com).

Diptiko bat prestatuko dugu buzoietan banatzeko, informazio argiarekin:

- Azpimarratu konpromisorik ez dela hartzen faktura emateagatik.
- Faktura non aurkeztu: emailera bidalita edo udaletxera ekarrita.

Kartel bat ere egingo dugu. Biak egiteko Goienerren laguntza izango dugu.

Gaurko saioak gauden guztiok konpromisoa hartu dugu ahoz aho ekimenaren berri emateko.

Segun eta faktura bilketa nola doan, baloratuko dugu frontenis finalean eta puzgarrien egunean mahaia jarri ala ez; biak abuztu bukaeran dira.

*Decidimos recabar facturas de las personas interesadas, para dimensionar y ubicar el proyecto con datos reales. En la última sesión del taller de facturas empezamos a recogerlas; llevamos 14.*

*En la primera sesión de septiembre, presentaremos el proyecto de la instalación ya dimensionado con datos reales, lo que sería un estudio de previabilidad. Hemos acordado la fecha de la sesión:* ***12 de septiembre, martes****, a las 18:00 en el ayuntamiento.*

*Hemos comentado que el objetivo puede ser recabar entre 30 y 40 facturas o CUPS. Nombre y apellidos y DNI no es suficiente.*

*Enviar las facturas a Maria (maria.arretxe@goiener.com)* ***antes del 4 de septiembre****.*

*Prepararemos un díptico para buzonear, con información clara:*

- *Subrayar que se entrega la factura sin compromiso.*
- *Que se puede enviar la factura al email de la comunidad o entregarla en el ayuntamiento.*

*También haremos un cartel. Las dos cosas se harán con la ayuda de Goiener.*

*Todas las personas asistentes hoy hemos tomado el compromiso de hablar con la gente y reforzar el boca a boca.*

*Según cómo vaya la recogida, valoraremos poner una mesa en la final de frontenis y en el día de los hinchables, los dos a finales de agosto.*

## 4. Komunikazioa / *Comunicación*

Whatsapp taldea sortuko dugu Talde Motor honetarako izena eman duten 26 pertsonekin.

Driven karpetak sortuko ditugu eta aktak eta dokumentazioa bertan partekatzen joan. Irakurtzeko zerbait igotzen denean, Whatsappez abisua bidaliko dugu.

Komunitatearentzat bizpahiru izen proposamen ekarriko ditu komunikazio lantaldeak iraileko saiora, bertan erabakitzeko. Beste herri batzuetan, ludoteka eta eskolekin hitz eginda umeen ideiak bildu dituzte. Umeen udalekuetan egin daiteke zerbait.

*Crearemos un grupo Whatsapp con las 26 personas que nos hemos apuntado para este Grupo Motor.*

*Crearemos carpetas compartidas en Drive para ir subiendo las actas y la documentación. Cada vez que se suba algo que haya que leer, se enviará un aviso desde Whatsapp.*

*El grupo de comunicación traerá 2-3 propuestas para el nombre de la comunidad a la sesión de septiembre. En otros pueblos han recogido ideas en colaboración con la ludoteca o la escuela. Se puede hacer algo con las colonias de verano.*

## 5. Itxiera / *Cierre*

Iraileko saioan landuko ditugun gaiak aztertu ditugu:

- Proiektuaren aurre-bideragarritasun azterketa, datu errealekin.
- Kooperatiba ala elkartea?
- Estatutuetarako atalak.
- Komunitatearen izena.
- Data batzuk adostu: eratze batzarra eta erregistroa noiz egin, herrian aurkezpen irekia noiz.
- Etxeko lanak banatu: proiektuaren bideragarritasun azterketa egin, izena libre egotearen ziurtagiria tramitatu, estatutuak idatzi, kontseilu errektorerako izenak proposatu, komunikazio plana egin…

*Hemos visto los temas que trataremos en septiembre:*

- *Análisis de pre-viabilidad del proyecto con datos reales.*
- *¿Cooperativa o asociación?*
- *Artículos de los estatutos.*
- *Nombre de la comunidad.*
- *Poner unas fechas: cuándo hacer la asamblea constituyente y el registro, acto de presentación en el pueblo.*
- *Tareas para casa: hacer el análisis de viabilidad del proyecto, tramitar certificación negativa, redactar estatutos, proponer nombres para el consejo rector, hacer un plan de comunicación…*

## 6. Egitekoak / *Tareas*

| ZER | NORK |
|---|---|
| - Juridiko-administratiboa: iraileko saiorako proposamena ekarri:<br>• Kooperatiba ala elkartea?<br>• Estatutuen atalak.<br>- *Propuesta para la siguiente sesión de:*<br>• *¿Cooperativa o asociación?*<br>• *Artículos de los estatutos.* | Lantalde juridiko-administratiboa<br>(Bego, Idoia) |
| - Buzoneoa eta kartelak, fakturak biltzeko.<br>- *Buzoneo y carteles para recoger facturas.* | Komunikazio lantaldea eta udala.<br>*Grupo comunicación y ayuntamiento.* |
| - Fakturak bildu eta ahoz ahokoa indartu.<br>- *Recabar facturas y reforzar el boca a boca.* | Denok<br>*Todos/as* |
| - Fakturak irailak 4 baino lehen Mariari bidali.<br>- *Enviar las facturas a Maria antes del 4 de septiembre.* | Zuriñe, Idoia. |
| - Whatsapp taldea sortu eta Driven karpetak partekatu.<br>- *Crear grupo Whatsapp y compartir carpetas en Drive.* | Zuriñe. |
| - Komunitatearentzako 2-3 izen proposatu iraileko saioan.<br>- *2-3 propuestas para el nombre de la comunidad para la sesión de septiembre.* | Komunikazio lantaldea.<br>*Grupo comunicación.* |